

LOMCERI EZ!

Ikusita Espainiako Gobernuaren Hezkuntza ministeritzak aurrera jarraitzen duela LOMCE delako lege aurreproiektuaren alde bakarreko inposaketaren bidez ...

Ikusita ez duela egiazko eztabaida garatu Hezkuntzako eragileekin, egindako proposamenei eta gizarte aldarrikapenei muzin eginez ...

Ikusita ondorengo atal atzerakoiak inposatu nahi dituela, hots :

- Ratioen igoera, masifikazioa geletan: bost ikasle gehiago gelako.
- Ikasleen segregazio goiztiarra, 3. DBHn.
- Ikasleen ibilbidea errebalida-lehiaketa baztertzaila bihurtzea.
- Sexuaren araberako segregazioa ekonomikoki sustatzea.
- Hezkuntzaren eta ikasleen erabilera merkantilista bilatzea.
- Ikastetxeak emaitza subjektiboen arabera publikoki klasifikatzea.
- Gestio eredu pribatua lehenestea ikastetxe publikoetan.
- Aginte organo unipertsonalak bultzatzea, bestelakoak ukatuz.
- Curriculumaren zentralizazioa eta uniformizazioa sustatzea.
- Euskal Herriko curriculumaren garapena are gehiago murriztea.
- Euskararen bazterketa inposatzea, behar duen lehentasuna ukatuz.
- Erljio katolikoa berrezartzea gizarte anitz eta laikoan.
- Murrizketa berrien bidez, Hezkuntzako langile ororen lan baldintzak hondatzea, eskaintzen dugun kalitatea zapuztuz.

Mozio honekin Udalarari zera eskatu nahi diogu:

- Mozio hau bai Eusko Jaurlaritzara, baita Espainiako Gobernu Zentrálara iritsi araztea honen aurrean dugun erabateko desadostasunaren berri izan dezaten.
- Herritarrei eta herriko erakunde publikoei lege honen inguruan dagoen informazioa emateaz gain, honek denongan izan ditzakeen ondorioak azaltzea.
- LOMCEn aurkako protesta modura herri mailan ekintza ezberdinak antolatzea, edo hauen antolakuntzan parte hartzea.

LANDABERRI IKASTOLAKO HEZKUNTZA KOMUNITATEA